



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko irailaren 27a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:35 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:58

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza, Jose Angel Iparragirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren akta honen zirriborroa: 2016ko uztailaren 26ko ohiko bilkurakoa.
- 2.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko udal langileek 2014ko ordainsarrietan kobratutako %1eko igoeraren diru-kopurua (guztira 20.273 euro) udal diruzaintzari itzultzeari buruz.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal langileen ordainsariak igotzea 2016an.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko kale-garbiketa zerbitzuaren kontratazioa.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko hiri hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratazioa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, EH Bildu eta PSE-EE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, kaleratzeen, pobreziaren eta desberdintasunaren kontrako neurriak hartzeari buruz.
- 7.- Onartzea, egoki bada, EAJ, EH Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, 1936ko uztailaren 18an hasitako Espainiako gerra zibilean frankisten errepresioaren biktima izandako oriotarren oroimenez.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN AKTA HONEN ZIRRIBORROA: 2016KO UZTAILAREN 26KO OHIKO BILKURAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gotzon Igoa zinegotziak (EH Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du aktaren 5. puntuan –eskariak eta galderak– ez dakiela akatsen bat badagoen, zeren-eta berak ulertu baitzuen, hondakinen mahaia lehenbailehen eratzea eskatu zitzaionean, Angel del Hoyo zinegotziak erantzun zuela baietz. Idazkariak erantzuten dio erantzuna ezezkoa izan zela. Angel del Hoyo zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du 'oraingoz, ezetz' erantzun ziola mahaia eratzeko eskariari.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork bestelako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2016ko uztailaren 26ko ohiko bilkurako akta, bilkura honetan Gotzon Igoa eta Angel del Hoyo zinegotziek egindako oharra jasota.

2.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL LANGILEEK 2014KO ORDAINSARIETAN KOBRATUTAKO %1EKO IGOERAREN DIRU-KOPURUA (GUZTIRA 20.273 EURO) UDAL DIRUZAINTZARI ITZULTZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia Udaleko Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak diktaminatu du, 2016ko irailaren 21ean egindako bilkuran.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko irailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA udal diruzaintzari itzultzea Orioko udal langileek 2014ko ordainsarietan kobratutako %1eko igoeraren diru-kopurua (guztira 20.273 euro). Hori guztia Kontuen Auzitegiko Epaitze Atalaren 2. departamentuko idazkariak egindako antolaketaarako eginbidea ikusita (B-127/16 zenbakidun atariko eginbideak, Tokiko Sektore Publikoa, Orioko Udalaren Fiskalizazio Txostena, 2014ko ekitaldia, Gipuzkoako probintzia).

2.- AGINTZEA Udal Kontu-hartzailetzari, Pertsonaleko Departamentuarekin koordinatuta, behar diren errekerimenduak egiteko 2014. urtean udalaren plantillan zeudenei, ordainsarietan kobratutako %1eko igoeraren diru kopurua (guztira, 20.273 euro) itzul dezaten.

3.- Udalbatzarraren erabaki honen **BERRI EMATEA** Kontuen Auzitegiko Epaitze Atalaren 2. departamentuari (B-127/16 zenbakidun atariko eginbideak, Tokiko Sektore Publikoa, Orioko Udalaren Fiskalizazio Txostena, 2014ko ekitaldia, Gipuzkoako probintzia), jakinaren gainean egoteko eta aipatutako jarduketa horiek artxibatzeko.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK IGOTZEA 2016AN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia Udaleko Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak diktaminatu du, 2016ko irailaren 21ean egindako bilkuran.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko irailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko udal langileen 2016ko ordainsari integroak %1 igotzea, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko; erabakiak atzerako eragina izango du 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KALE-GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak Orioko kale-garbiaketa zerbitzuaren kontratazioari dagokion espediente administratiboaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Udaleko Kontratazio Mahaiak 2016ko irailaren 16an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2016ko uztailaren 22an eta 29an egindako proposamenak irekitzeko egintzak.

2. - FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS SA entitate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko kale-garbiaketa zerbitzua emateko kontratua. Kontratuaren urteko prezioa 281.744,99 eurokoa da, gehi %10eko BEZari dagokion 28.174,50 euroko zenbatekoa. FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS SAk lehiaketa publikora aurkeztutako proposamenean jasotako baldintzen arabera eta klausula administratibo eta teknikoaren arabera emango du zerbitzua.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien legezko eta arauzko errekurtsioak azalduz.

5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA ETA GARRAIO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak Orioko hiri hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzuaren kontratazioari dagokion espediente administratiboaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Udaleko Kontratazio Mahaiak 2016ko irailaren 16an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO**



HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2016ko uztailaren 22an eta 29an egindako proposamenak irekitzeko egintzak.

2.- FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS SA entitate merkantilari **ADJUDIKATZEA** Orioko hiri hondakin solidoen bilketa eta garraio zerbitzua emateko kontratua. Kontratuaren urteko prezioa 173.475,56 eurokoa da, gehi %10eko BEZari dagokion 17.347,56 euroko zenbatekoa. FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS SAK lehiaketa publikora aurkeztutako proposamenean jasotako baldintzen arabera eta klausula administratibo eta teknikoen arabera emango du zerbitzua.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien legezko eta arauzko errekurtsoak azalduz.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU ETA PSE-EE-PSOE TALDE POLITIKOEN AURKEZTUTAKO MOZIOA, KALERATZEEN, POBREZIAREN ETA DESBERDINTASUNAREN KONTRAKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen nagusiek zein Espainiako Konstituzioak etxebizitza eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri gisa arautzen dute. Hortaz, eskubide honen sustapenak materia honen gainean eskumenak dituzten botere publiko guztien jarduera positiboa eskatzen du, hauen artean Tokiko Administrazioarena ere.

Egungo krisi ekonomikoaren ondorio larrietako bat familia askok euren ohizko etxebizitzaren mailegu hipotekarioaren kuotak edo alokairuaren errentak ordaintzeko bizi duten ezintasuna da. Egoera honek, etxebizitzaren galera ez ezik, langabeziak eragindako gainontzeko ondorio tamalgarriak dakartza kasu askotan berarekin.

Tokiko Administrazioek ezin dute honen aurrean geldirik egon. Hiritarroi babesgabeziak eta etxebizitza eskubidea modu eraginkorrean bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak burutu behar dituzte. Kasu askotan, gainera, botere publikoek finantza erakundeek eta hiritarren harremanetan gero eta nabarmenagoa den desoreka berdintzeko lan egin beharko dute, halaber.

Horregatik, udalek ohizko etxebizitza galtzeko arriskuan dauden familiak babesteko programak abian jarri beharko dituzte, aholkularitza eta bitartekaritza



indartuz eta, betiere, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS bezalako plataformekin elkarlanean.

Udalek, herritarrongandik gertuen dauden administrazioak direlako eta euren arazo, behar eta eskakizunak ezagutzen dituztelako, langabeziak estututa edo eurek sortu ez duten krisi ekonomikoak ordainezinak bilakatu dituen hipotekei aurre egin ezin dietelako, egoera kezkagarrian bizi diren milaka familien egoera zuzentzeko betebeharra dute.

Honengatik guztiagatik, eta udal honetan ordezkaritza duten alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioek sinatu duten KALERATZEEN, POBREZIAREN ETA DESBERDINTASUN SOZIALEN KONTRAKO DEKALOGOAREN 10. puntua bete dadin nahi dugulako, KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS plataformak ondorengo mozioa aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

MOZIOA

1.- Udaletxe honek "Kaleratzerik Gabeko Herri" deklaratzeko du udalerri hau.

2.- Udaletxe honek beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiliko ditu lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta, behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko.

3.- Udaletxe honek etxegabetzeak saihesteko jarduera guztiak koordinatuko dituen pertsona edo organismo bat izendatuko du, betiere Kaleratzeak Stop Desahucioekin eta etxebizitza duin baten eskubidearen alde lan egiten duten gainontzeko elkarteekin lankidetzan jardunez.

4.- Udaletxe honek udalerri honetan eta udalerritik kanpo jarduten duten finantza erakundeengana joko du fede oneko zordunen kaleratzeak geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda galdatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar ditzaten exijitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egiteari uztea.

5.- Udaletxe honek, kaleratze edo irtenarazte baten abisuaren aurrean, finantza edo administrazio erakundearekin bitartekotza egingo du etxegabetzea geldiarazteko eta, behar izanez gero, irtenaraztean udaltzaingoak komisio judizialari laguntza eman diezaion ekidingo du, kaltetutako pertsonak bizi duen egoeraren larritasuna aztertuz eta konponbide justu eta egoki bat bilatuz. Etxegabetzea saihestu ezin izan denean, udaletxeak beharrezko neurriak hartuko ditu kaltetutako pertsonen arrazoizko prezioan alokairu sozialeko erregimenean berriz ostatu emateko.



6.- Udaletxe honek kaleratzea edo irtenaraztea ekar dezaketen kasu guztien berri eman diezaizoten galdegingo die epaitegi eskudunei, bazterketa arriskuan dauden kolektibo sozialak identifikatu, zerbitzu sozialek euren txostena eman eta kolektibo hauei bizileku bat eskeini ahal izateko.

7.- Udaletxe honek, Alokabidek kudeatzen duen Etxebizitza Publikoen Parkeari dagokionean, LAKUAKO GOBERNUARI beharrezkoak diren erabaki eta modifikazio legalak burutu ditzan exijitzen dio, GASTEIZKO LEGEBILTZARRAK pasa den 2014ko apirilaren zazpian etxebizitza publikoen inkilinoei buruz hartutako akordioa betearazteko.

8.- Udaletxe honek titulartasun publiko zein pribatuko etxebizitza hutsen inbentario bat egingo du lehenbailehen. Bere jabetzakoak hiritarren bizileku premien zerbitzura jar daitezten beharrezko diren neurriak hartuko ditu, bereziki fede oneko diren zordunen etxegabetzea saihestu ezin izan den kasuetarako. Era berean, hiriaren etxebizitza beharrak aztertuko ditu sei hilabeteko epean eta, hauen artean, pilaketak; erabiliak izan ezin diren etxebizitzak edo berritzeak behar dituztenak ere kontuan hartuko ditu.

Orio, 2016ko uztailaren 20a.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko irailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

ONARTZEA EH Bildu eta PSE-EE-PSOE talde politikoek aurkeztutako mozioa, kaleratzeen, pobreziaren eta desberdintasunaren kontrako neurriak hartzeari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Aizpea Ubegun zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du 2013ko udalbatzar batean erabaki zela mozioan aipatzen diren egoeren aurrean Udalak nola jokatu behar duen zehazteko protokolo bat onartzea. Bertan jasotzen zen Udalak, Gizarte Ongizate departamentuaren bidez, nola jokatu behar duen horrelako egoeratan. Protokolo hori, beraz, indarrean dago gaur egun; baina, itxura batean, ez da inoiz aplikatu.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ, EH BILDU, ORAIN ETA PSE-EE-PSOE TALDE POLITIKOEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 1936KO UZTAILAREN 18AN HASITAKO ESPAINIAKO GERRA ZIBILEAN FRANKISTEN ERREPRESIOAREN BIKTIMA IZANDAKO ORIOTARREN OROIMENEZ.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioa Orioko herritar baten ekimenez aurkeztu dute talde politikoei eta honela dio, hitzez hitz:

Aurtengo uztailaren 18an 80 urte bete ziren Espainiako gerra hasi zenetik, eta irailaren 20an 80 urte bete dira tropa faxistak (Francoren soldaduak, falangistak, reketak eta Italiako eta Marokoko soldaduak) Orion sartu zirenetik.

Errepublikaren eta orduko legalitatearen defentsan, faxistei aurre egiten, errepublikarrak, euskal gudariak eta herritar xume batzuk saiatu ziren egun batzuetan. Alferrik, faxistak herria inbaditu zuten 1936ko irailaren 20an. Egun batzuk lehenagotik oriotar askok ihes egin zuen herritik atzerriara.

Gerra hartan Orioko hainbat herritar hil ziren, eta beste hainbatek osasuna, ondasunak, lana eta askatasuna galdu zuten. 1936ko irailaren 20 hartatik, ordura arteko udal agintariak, herritarrek hauteskunde bidez aukeratutako ordezkariak, udaletxetik kanpo geratu ziren, batzuk betiko atzerrian. Handik aurrera, Francoren agintariei izendatutako herritarrek eraman zuten Orioko udalaren martxa, 1979ko apirilaren 3an gerraosteko lehenengo udal hauteskundeak izan ziren arte.

Gaur, 2016ko irailaren 27an, oriotarren oraingo ordezkari politikook, aho batez, gogora ekarri nahi ditugu:

- Alde batetik, gerra anker haren ondorioz latz sufritu zuten oriotar guztiak.

- Eta bestetik, 1936ko irailaren 20ra arte Orioko herritarren ordezkari politiko izan ziren bederatzi zinegotziak: Juan Erzilla, Ramon Loidi, Domingo Karrera, Esteban Azkue, Jose Maria Arrillaga, Inazio Manterola, Ramon Salsamendi, Juan Jose Iturain eta Ramon Uranga; idazkari Santiago Azurza zutela.

Haien ohorea eta oroimena aldarrikatu nahi ditugu, 80 urte pasatu eta gero omenaldi xume honen bidez.

Orion, 2016ko irailaren 21ean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2016ko irailaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EAJ, EH Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoei Orioko herritar baten ekimenez aurkeztutako mozioa, 1936ko uztailaren 18an hasitako Espainiako gerra zibilean frankisten errepresioaren biktimak izandako oriotarren oroimenezkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.



8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSO Eren izenean, eta adierazten du Udalaren 2016ko aurrekontuan 1.000 euroko partida bat dagoela Orion azterketa-lan bat egiteko pobreziaren eta desberdintasun ekonomikoaren gaiari buruz, eta alkateari galdetzen dio ea azterketa-lan hori 2016an egingo den ala datorren urtean.

Alkateak erantzuten dio, esanez Angel del Hoyo zinegotziari agindu diola gai hori lantzea eta hark esan diola dagoeneko jarrita dagoela harremanetan Irunen bizi den aditu batekin eta zain dagoela ea gaia nola gauzatzen den ikusteko.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du era horretako azterketak dagoeneko egin direla beste udal batzuetan eta askoz arinago eta praktikoago izango zela udal horietara jotzea eta han erabili dituzten baldintza-orriak eskuratzea, ondoren Udalak kontratazioa bideratzeko, dagozkion udal teknikarien bidez.

Azkenik, Hirigintza eta Ingurumena batzordearen buru Angel del Hoyo zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du hondakinen mahaia biltzeko deialdia 2016ko azaroaren erdialdera egingo dela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,